

BEHARTUTAKO AGURRAK

Gero eta gehiago dira behartutako desplazamendua pairatzen dutenak

ERREFUXIATUAK / Iraitz MATEO

Giza eskubideen urraketek hamaika ondorio dakartzate; horietako bat da behartutako desplazamendua. Inoizko desplazatu gehien izatera iristen ari da mundua, eta adituek diotenez, «bakearen bideak bakarrik iraul dezake egoera». Gaur egun 120 milioi pertsonak baina gehiagok pairatzen dute behartutako lekualdaketa.

Gatazkak, larrialdi klimatikoa eta goseak. Horiek dira gaur egun herritarrak beraien herrietatik alde egitera behartzen dituzten arrazoi nagusiak. Oinarrizko giza eskubideen urraketak, finean. Arrazoi globalez gain, arrazoi partikularrek ere bultzatu ohi dituzte behartutako agurrak. Ikuspegi orokorra landu baina helduleku zehatzak garatu nahian, UNHCRk, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Erakundearen Agentziak, behartutako desplazamenduen inguruko txostena argitaratu berri du: “Behartutako desplazamenduen joera globalak” izenburupean.

Behartutako desplazamenduaren fenomeno zehatzago ulertzeko, definiziora jotzea izan daiteke aukera bat: gatazkengatik, indarkeriagatik, jazarpenengatik eta giza eskubideen urraketengatik etxetik alde egiten duten pertsonen egoerari dagokio. Behartutako desplazamenduaren bidea hartzen dutenek gatazken amaiera ez dute batere hurbil ikusi ohi, horixe baita desplazamendua bultzatzen duen faktore nagusia; «krisi honek okerrera egingo du», izan ohi da beraien aurreikuspena. Lu-

zea izaten da desplazatuen bidea, askotan hamarkadak irauten ditu, eta lekualdatze bat baino gehiago egin behar izaten dituzte.

Munduan, 120 milioi pertsonak egin dituzte behartutako desplazamenduak. Azken hamabi urteei erreparatu gero, gorantz egin du desplazamenduen joera, eta UNHCRren txostenaren arabera, «errekorra» gaingitzen ari da: «gatazka berrien eta urte luzez konpondu ezin izan diren krisi

luzeen ondorioa da zifra hori» zehaztu dute adituek.

120 milioi asko dira, gehiegi. Zenbakiez harago, irudikatze moduek sarritan inpaktu handiagoa sortzen dute. Adibidez, desplazatutako herritarrak batu eta herrialde bakar batean irudikatuko bagenitu, munduko hamabigarren herrialde handiena eratuko lukete, gutxi gorabehera Japoniaren tamaina izango lukeen herrialde bat. Edota beste modu batera esanda, biztanleria osoaren %1,5 desplazatuta dago, txostenak argitzera eman dituen datuen arabera.

Batez ere, gatazka duten lurraldeetako biztanleek ikusten dute beren burua tokiz aldatzera behartuta, eta azken urteetan Sudaneko, Gazako eta Siriako egoera politikoak behartu ditu bertako herritarrak lekualdatzera. UNHCRren ikerketaren arabera, herrialde

horiek pairatu behar izan dute lekualdatze gehien.

Nazioarteko Agentziak nazioarteko komunitatearen «apatia eta gelditasuna» salatu ditu, eta «premiatzeko» erantzuna behar dela mahaigaineratu du beste behin ere.

MUGA INGURUA

Azken urteetako desplazamenduen arrazoi nagusia gatazka armatuekin lotuta egon da, eta ondorioz, herrialdeen barne mailako desplazamendua handitu egin da: ia %50 hazi da azken bost urteetan. Gaur egun, herrialde barruan lekualdatu edo ondoko herrialdeetara joatea da joera nagusia.

2023ko apirilaz geroztik, 7,1 milioi desplazamendu berri baino gehiago erregistratu dira herrialdeen barne mailan, eta 1,9 milioi, norbere herrialdetik kanpoko lurraldeetara. Zifrak horrenbeste igotzearen

Hego Sudanerantz doan furgoneta bat, bertan desplazatuak izango diren herritarrak dituena.
Sally HAYDEN | EUROPAPRESS



arrazoi nagusietako bat Sudane-ko gatazka izan dela dio txostenak.

Izan ere, azken hamalau hilabeteetan, 10,8 milioi herritar lekualdatu dira Sudanen; batzuk, herrialdearen hegoalde-rantz eta beste batzuk, herrialde-rik kanpora. Gaza ere ezin dugu aipatu gabe utzi egungo testuinguruan: 1,7 milioi per-sonak lekualdatu behar izan dute azken hilabeteetan; hau da, bertako biztanleen %75ek.

Siria da azken urtean behar-tutako desplazamendu gehien pairatu duen lurraldea; 13,8 milioi desplazatu, hain zuzen ere. «Gorantz jarraitzen duten zifra gordin horien atzean, gi-za tragedia ugari ezkututzen dira. Sufrimenduak premiaz jokatzera bultzatu behar du nazioartea, desplazamendu behartuaren arrazoiei aurre egiteko», adierazi du Filippo Grandi Lor Errefuxiatuentzako NBERen goi mandatariak.

Desplazamendu mota ezber-dinak izaten dira herrialdearen eta lekualdatutako herritar-ren arabera. Errefuxiatutako gizartearen zati handi batek, %69k, ondoko herrialdeetara jotzen du; mugakide dituz-ten herrialdeetatik gaindi le-kualdatzen direnak, berriz, %43 inguru dira. Batez ere, errenta baxua edo erdi mai-lakoa duten herrialdeetara al-de egiten dute: 2023an, hain zuzen ere, tokiz aldatutakoen %75 joan zen mota horretako herrialdeetara.

Txostenak jaso duenez, asi-lo eskaera gehien izan duen herrialdea, diferentzia handiz, Ameriketako Estatu Batuak di-ra, 1,2 milioi pertsonaren es-kaerarekin. Alemaniak, bestal-de, 329.100 eskaera jaso zituen iaz; Egiptok, 183.100; Espai-niak, 163.200, eta Kanadak, 146.800 eskaera.

BAKERIK EZ

Bigarren mundu gerraz geroz-tik «inoizko bake egoerarik ahulena» bizi du munduak. Azken 30 urteetako hildako zi-frarik altuena utzi digu 2023. urteak: erregistratutako da-tuen arabera, 162.000 hildako gerren eraginez. Txostenak ja-so duenez, gaur egun 56 gataz-ka daude aktibo (1945etik izan-dako zifrarik altuena), eta 92 herrialde daude tartean. «Bos-garren urtez jarraian mundu-ko bakea gero eta okerrago da-go», ondorioztatu dute.

2024ko lehen lauhilekoaren datuak ere jakinarazi dituzte, eta horien arabera, aurtengo lehen lau hilabeteetan 47.000 hildako izan dira gatazken eraginez, eta beraz, urte osoan joera horrek jarraituko balu, 1994ko Ruandako geno-zidioaz geroztik izandako ko-pururik handienera iritsiko liriteke, munduan, behartu-tako lekualdaketak.

Steve Killelea Ekonomia eta Bakerako Institutuaren sor-tzaile eta presidenteak azal-du duenez, bake mailak behera egin du azken hamar urteetatik bederatztan. «Ga-tazka kopuruen errekorra, militarizazioaren gorakada eta nazioarteko lehia strate-gikoa ikusten ari gara», gai-neratu du txostenak.

IRTENBIDEAK BADIRA

UNHCRk jakinarazitako zifren arabera, bost milioi desplaza-tuk baino gehiagok eta milioi bat errefuxiatuk beraien etxe-rako buelta egin zuten 2023. urtean. Aurrera begira jarritz gero, zifra esanguratsua izan daitekeela diote adituek, eta «esperantza» sortzen duela gaineratu dute. «Irtenbideak egon badaude, ikusi ditugu Kenya eta beste herrialde ba-tzuk lanean errefuxiatuak gi-

Desplazatutako herritarrak batu eta herrialde batean irudikatuko bagenu, munduko hamabigarren herrialde handiena litzateke, gutxi gorabehera Japoniaren tamainakoa

Errefuxiatutako gizartearen zati handi batek, %69k, ondoko herrialdeetara jotzen du; batez ere, errenta baxua edo erdi mailakoa duten herrialdeetara lekualdatzen dira

zarteratzeko, baina benetako konpromisoa falta da», dio txostenak.

Joan den urteko beste bi da-tu baikor ere argitaratu dituzte UNHCRren txostenean. Beren herrialdeetara itzulitako des-plazatuez gain, 158.700 errefu-xiatu beste herrialderen ba-tean birkokatu zituzten, eta 32.200 aberrigabek nazionali-tate bat eskuratu zuten. «Bir-kokatzea arrisku egoeran dau-den errefuxiatuen bizitzak salbatzen dituen esku-hartzea

da, eta erantzun esanguratsua ematen die gero eta ugaria-goak diren eta konpondu ez diren nahitaezko desplaza-mendu egoerei», gehitu du UNHCRko kideak.

Irtenbideak badaude, baina 2025ari begira jarri eta orain-dik egiteko asko dagoela on-dorioztatu du UNHCRren txostenak. Mundu mailan errefuxiatu askok lekualda-tuak izateko beharra izango dute, eta 2024. urteko datue-kin alderatuta, %20ko igoera izango luke birkokatu edota lekualdatuko diren herrita-rren kopuruak.

Bederatzigarren urtez ja-rraian, Siria izango litzateke behar handiena duen herrial-dea. Zifra horiek ikusita, UNHCRk estatuei eskatu die «birfinkatzearen konpromi-soa areagotzeko», eta beren programa nazionalek hori au-rreikustea eta azkartasuna ematea kasu larrietan.

Gatazkek eragiten dituzte lekualdatze gehienak.
EUROPA PRESS

